



MUNDAKAKO UDALA

29.05.2018

MUNDAKAKO UDALAK LARRINAGA JAUREGIAREN EGOERA ZAINDU EGITEN DAU ETA BERTAKO LANAK IKUSKATZEN DAUZ, ZUHURTASUNEZ, ERANTZUKIZUNEZ ETA LEGEAREN ALDE EGINEZ

Mundakako Udala, herriko ondarearen aldeko konpromisoari so eginez, Mundakako jabego pribatuko Larrinaga Jauregiko eraikinaren lanen segimenduaz arduratzen da. Horretarako, bere kompetentziari dagokionez, eraikinaren babeseta eta proiektuko lege betekizunei dagokionez aldeko erantzuna jaso dau Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailatik, hau guztia betetzen da eta.

Mundakako Udalak Larrinaga Jauregiko egoera zaindu egiten dau eraikinaren birmoldaketa prozesua hasi zanetik. XIX.mendeko eraikin berezia da, Mundakako Hiri Planeamenduan Babestu Beharreko Ondasunen Katalogoaren barne dago. Herriko ondare arkitektoniko honen inguruan legaltasuna eta babeseta bermatzeko, lehenengo Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Kulturalako Zerbitzuari kontsulta egin eutson udalak eta baiezko txostena jaso eban.

Behar dan bezala jarduteko, eraikina ahal dan beste babesteko eta Larrinaga Jauregiko barriztatze lanen inguruan sortutako informazioen aurrean, hauetan barrizteke dauden elementu batzuen egoera zalantzan jartzen zirenez, Mundakako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ondare Kulturalaren Sailagaz jarri zan kontaktuan, Jaurlaritzak bere jarrera definitzeko bidalitako gutuna argitzea eskatuz. Kontsulta egin ondoren, Mundakako Udalak bermatuta ikusten dau bere jarduera Larrinaga Jauregiaren birmoldaketa prozesuan. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren erantzuna aldekoa da udalaren kompetentziari dagokionez bai eraikinaren ondare eta babesaren inguruan eta baita lanen betekizun legalen aldetik.

Eusko Jaurlaritzak honako argitu dau bere erantzunean: “ eraikin hori ez dago jasota Eusko Jaurlaritzaren kultura-ondasun kalifikatu edo inbentariatuen erregistroetan, eta, beraz, bere gaieko eskumena kultura ondarearen eta bere babesaren alorrean udala berarena da eta, modu subsidiarioan, Bizkaiko Foru Aldundiarena”.

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren erantzunean honakoa agertzen da: “Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoko Zerbitzuak oneritzia eman deutso lanen proiektuari eta ,beraz, ulertzen dogu azken horrek gauzatzeko beharrezko lege-baldintzak betetzen dabeela”. Honen barne Larrinaga jauregiko atzealdeko fatxadaren eraispena dago, geroago barriz eraikitzeko. Gomendioa da zorrotz jarraitzea lanak, gura barik Larrinaga jauregia behera etorri ez dadin. Ikuskapen honetan darrai Mundakako Udalak proiektuaren hasieratik.